

0-4
URTE



KROKODILOA / A. RUBIO

Ilargian kulunkantari bilduma. Kolorerik kolore irakurria eta erreztatua izateko metatze-poema. Krokodilo berde berde berde bitxiarekin hasten da; hasteko, kutxa batera igotzen da, hurrena gaztelu batera, eta aurrerago...



LIBURU BAT / H. TULLET

Ikusmira handia duten haurrei zuzendutako liburu interaktibo sinple bezain bikaina. Liburuaren lehenengo orrialdean biribil hori bat azaltzen da fondo zuriaren gainean. Haurrak hatzarekin ukitu eta zer gertatzen den ikusteko, orrialdea pasatzeko gonbitea jasoko du. Hurrengo orrialdeetan koloreetako biribil gehiago azalduko dira; lekuz aldatuko dira, lerroan jarri, handitu eta liburutik ateratzeko zorian ere egongo dira momentu batzuetan. Irakurtzeko, jolasteko eta ondo pasatzeko liburu magikoa.



NIRE AHATE TXIKIA / B. TECKENTRUP


Ahate txikiak marioratz batekin egin du topo, eta igel batekin, eta arrain batekin, eta anai-arrebekin batera ezkutaketan jolastu da, lo-kuluxka bat egiteko ordua iritsi arte. Bilduma honetako liburuak %100 birziklagarria den paperarekin eta tinta ekologikoeekin daude eginak.



TXOMINEN 5 ZENTZUMENAK / L. SLEGERS

Zentzumenak oso garrantzitsuak dira Txominen egunerokoan. Begiekin, belarriekin, sudurrarekin, mihiarekin eta eskuekin inguratzen duen mundua ezagutzeko aukera du. Izan ere, gauza pila ditu bere inguruan ezagutzeko!

4-8
URTE



FARAOIAREN MISTERIOA / S. STEVENSON

Egipto, Erregeen Harana. Arkeologo talde bat faraoi misteriotsu baten hilobia aurkitzeko zorian dago. Aurkikuntza iraultzailea izan liteke... Baina, zoritxarrez, hilobira heltzeko bidea erakusten duen oholtxoa lapurtu egin dute. Kasu hau Agatha eta Larry Mystery detektibe ikasleek bakarrik argi dezakete!



EZ NAIZ ILEHORIA, ETA ZER? / K. URIBE

Amirak ilehoria izan nahi du, filmetako aktoreen moduan. Izebarekin astero joaten zen zinemara Europara etorri aurretik. Gero, zinematik atera eta Europara begira jartzen ziren biak itsasertzetik. Orain itsasoaren beste aldetik idazten dio izebari. Hala, Amirak ikusaraziko digu desberdintasuna dibertigarria ere izan daitekeela, eta aberasgarria, munduari begiratzeko modu berriak eskaintzen dizigulako.



TXISTERIK ONENAK / L. MORA

Txiste mota asko daude, baina denek barrea eragitea dute helburu. Batzuek hitzekin jolastuz lortzen dute, beste batzuek, igarkizun edo gehiegikerietara jotzen dute, eta, badira haien irudimen handiagatik harrigarriak direnak ere. Gure txisteekin barre egin nahi duzu?



SALTOKA IBILTZEN ZEN PILOTA BAT / T. MARTÍNEZ DE LEZEA

Badakizue pilotak era askotakoak izaten direla: handiak, erdi mailakoak, txikiak, eta oso txikiak. Badira kolore bakarrekoak, askotarikoak; eta, baita marrazkiak dituztenak, edo marrak. Baina DENEK, DEN-DENEK, gauza bera egiten dute: BOTE EGITEN DUTE.



ZER DEMONTRE DAGO AULKIEN AZPIAN? / H. CANO


Liburu honek Harkaitz Canoren narrazio laburrak biltzen ditu. Narrazio bakoitzean oinarritua, Lorena Martinez Oronozek irudi bat sortu du. Hogeita hiru testu poetiko, ipuin labur, aforismo edo jolas-proposamenak dira; eta, alboan dituzten irudiekin oihartzun bitxiak sortzen dituzte. Sormena lana, txandakakoa eta norabide bikoitzekoa izan da.



ZIRKU MAGIKOA / P. LECHERMEIER

Egunak zeramatzen zain. Zenbait kartel iradokitzailek letra koloretsuz zioten: ZIRKU MAGIKOA. Freddiek urre koloreko botoiak zituen soineko gorri bat jantzi zuen, kapelua, apur bat maspildua, eta bota beltzak, distiratsak. Ontziak, mailetak eta kutxak atera zituen karabanatik, eta plaza handiaren erdi-erdian utzi. Lehen kutxa ireki zuen. Izar batekin egin zuen ihes, eta karpa bat zabaldu zen. Ikuskizuna hasteko prest...

8-12
URTE



NIRE LAGUNEN GEZURRAK / J. ITURRALDE

Gezurrak ez omen dira esan behar; ezta gezur txikiak ere. Hori esaten digute beti ikastetxean irakasleek eta etxean gurasoek. Baina beti egia esatea oso aspergarria da, saltsa pixka bat gehitu behar zaio bizitzari, eta hori aldika gezurtxo batzuk esanez lortzen da. Askotan gezur batek lagundu egiten du, arindu egin dezake egoera astun, petral bat. Gainera, denok ditugu halako hanka sartzeak.



SHERLOCK HOLMESEN ABENTURAK / A. CONAN DOYLE

"Sherlock Holmesen abenturak" liburua Conan Doyleren obra zabalaren lanik ezagunena da. 1891ean Strand aldizkarian atalka argitaratzen hasi zen, eta 1892an hamabi abentura biltzen zituen liburua argitaratu zen. Egilearen arrakasta narrazio laburren forma aukeratzean datza. Horieta, detektibe baten behaketa eta ondorioztapen gaitasun paregabea nabarmentzen da.



LUR ETA AMETS: Euskal Herriaren historia / M. ARREGI

Izan ginena ezagutzera eman, oraina sortu eta etorkizuna irudikatzen duen ezagutza-liburu honek Euskal Herriaren historiaren kronika jasotzen du. Gure herriko lurraldeen aniztasuna eta aberastasuna erakutsi nahi izan dugu bake garaian nahiz gerra urteetan. Horregatik, liburu honetan era askotako jendea agertzen zaigu. Lurraren sorreratik bertatik abiatuta, gaur arteko historiaren kronika honetan amona Andereren ahotsaren oihartzuna jasoko dugu; Lur eta Amets anai-arreben bizipenen aztarna eta Baltaxar katuaren hitz jostari eta zirtolaria.



ORIOI ARLOTE: Aberastu naiz azkenean! / E. SANTANA

Oriol dut izena, baina etxean "mukitsu", "buruhandi", "aizak!", "arautza oskol" eta "zure seme hori" esaten didate. Hori gutxi balitz, sekula ez dut zentimorik izaten. Arlote bat naiz. Nire lagun Lisekin nagoenean, ez dago oztopo gaindiezinik! Nire familia pixka bat eramanerrazagoa izango balitz, zeruan egongo nintzateke!



MUNDUA BALOI BATEAN / P. ZUBIZARRETA eta E. ODRIZOLA

Nikolas eta Kepa aurrez-aurre daude. Nikolasek Kepari gola sartu nahi dio, besteak beste karramarro eta kakanarru deitzen diolako. Baina gol mundial hori sartu nahian, mutikoa atzeraka ibiltzen hasiko da, atzeraka, bai, abiada egokia hartu ahal izateko. Eta, joan, joan, beti joan, atzera, atzera, beti atzera, Nikolasek oso bidaia luzea eta arriskutsua egingo du, ia barregarri geratzerainokoa. Eskerrak hiruzpalau lagun bitxi eta berezi ondoan izango dituen! Alabaina, geratuko al zaio indarrik berak nahi duen bezalako txuta egiteko?



ARBOLANDI / J. GOLDSTYN

Bakartia, horixe naiz ni. Bakarrik egiten ditut gauzak. Baina ez uste horrek amorratzen nauenik. Eta gustuko ditudan gauza guztien artean, nire zuhaitzera igotzea dut maiteen. Nire zuhaitzak Arbolandi du izena.



Euskarazko liburu gomendatuen katalogoa

12-16 URTE




DUMITRU / K. IZAGIRRE

Dumitru errumaniarra da izenez eta jatorriz. Bere kalterako, noski, errumaniarra izatea eta lapurra izatea bat egiten dituen gizarte honetan. Haatik, semearentzat inguru hobetoago bat nahi zuelako ekarri zuen hona Cosmin Petrescu soinu-joleak, Danubio bazterreko sorteria utzita. Badira urte batzuk Dumitru euskalduna dela hitzez eta bizitzek. Lagunek maite dute, Olatzek bereziki. Eta une batez, guztiak Dumitru direla erabakiko dute...




ZERUKO ATEETAN DEIKA / J. SIERRA I FABRA

Silvia, Medikuntza-ikaslea, Indiarra joan da boluntario, mundutik urrun dagoen ospitale batean udan lan egitera. Gurasoak eta mutil laguna aurka izan ditu erabaki hori hartzean, baina senari eta bihotzari kasu eginez, bere die.



OZE-EKO AZTI HARRAIGARRIA / L. FRANK BAUM

Dorothy, Kansasen bizi da. Behin, zikloi erauntsi gogor batek Dorothy airean eramaten du, bere txakurtxo alboan duela, etxe eta guzti. Hegaldia amaitutakoan lurralde ezezagun batean agertzen da: Ozeoko Herrialdean. Bidaia baten hasiera da. Bidaia horretara hiru bidelagun batuko zaizkio: lehoi izubera, garunik gabeko txorimaloa, eta bihotzik gabeko latoizko aizkolaria.




ULYSSES MOORE: DENBORAREN ATEA (1) / P. BACCALARIO

Ulia eta Jason, hamaika urteko neska-mutil londrestarrak, Cornualleseko Kilmore Covera etorri dira bizi izatera. Argo Enea, Ulysses Mooreren izandako etxea, bere jabe abenturazaleak utzitako sekretuz, misterioz eta ezustekoak gainezka dago.



SKATERRAK 1: ERTZEAN / M. VALVERDE

Ez da batere ona Adrianek anaiarekin duen harremana, eta amak elkarrekin ibiltzera behartu ditu. Imanolen skater taldeak gogo onez hartu du anaia gaztea! Haien arteko konplizitate sendotu egingo da, katedral zaharreko hormetan marka berezi batzuk aurkitzean. Skatea da haien mundua: askatasuna, mugak gainditu nahia eta adiskidetasuna. Hiria da haien skate-parkea, eta ez da beti eszenatoki samurra...



GEURE IPUINAK / X. ETXANIZ ERLE

Euskalki ezberdinetan zeuden ipuin hauek euskara batuan jarri dituzte, baina hori bai, jatorrizko euskararen freskotasuna, aberastasuna eta edertasuna ahalik eta ongien gordez. Liburuaren asmoa, ipuin bilduma hau egiterakoan, geure literaturaren altxor hau eskuragarri jartzea izan da. Eta guk gozatu dugun bezala zuk zeuk, irakurle, gure herriko kontakizun zoragarri hauekin goza dezazun nahiko genuke.

hel duak



GEZURREN BASOA / Alberto Ladron Arana. Donostia. Elkar. 2016

Haur bat desagertu da bere etxetik, gurasoak kanpoan zirela. Foruzaingo arduratuko da kasuz, baina, misterioa argitzearekin batera, beste desagertze zaharrago eta ilunago baten arrastoak aurkituko dituzte. Leire Asiain inspektorearen kasu berri honetan, irakurleak hainbat elementurekin egingo du topo: bahiketetan espezializatutako mafia, eskrupulu gutxiko ikerlari pribatua, sinesmen esoterikoak...



HAUR BESOETAKOIA / U. ITURRIAGA

"Haur Besoetakoa" komiki ganberroa da, nobela beltz bat, haurren munduan girotua, egia handi eta borobilak kontatzen dituena, mozarrotuta. Irakurleak begien aurrean duen munduan legez, handinahikeria, boterea eta ustelkeria nahasten dira haurren mundu honetan ere, non helduak ez diren ugalketarako eta zerbitzurako izaki hutsak besterik.



NOMADA / A. ETXEBERRIA

Sobietar Batasuneko enbaxadore berriaren etorrerak Nikolay Zaitseven bizimodu lasaia hankaz gora ipini du eta Txotxongilo Antzokiko bere mundu txikitik aterarazi. Hasiera batean pasaportea berritzeko errutinazkoa behar zuen solasaldia, ustekabearen denboran luzatzen eta korapilatzen joan den itaunketa sakona bilakatu da, iraganeko heriotza bat argitu nahian.



IZENIK GABEKO LURRAK / U. ZUBIAURRE

Izenik gabeko lurrek, lepoek, basoek eta hiriek badute izenik. Mendiko mapetan agertzen dira izenok, historia liburuetan, baita errealitatearen eta fantasiaren arteko eremu lausoan ere. Beraz, irakurle, lasai ekin diezaiokezu lurralde horietara doan kaminoari, bidean barrena hainbat gizaki, otso eta bele igaro baita dagoeneko. Aitzindariak, heretikoak, soldaduak, igarleak eta espioiak dabilta hara eta hona. Denak izango dituzu lagun geografia berezi hauetan. Eurek erakutsiko dizute, besteak beste, urrearen bailaran eta desertu gorrian amaitzen den bidea. Baina ez iezaezu galdetu nola egin behar den atzera itzultzeko. Begietan antzematen baitzaie jakin nahi ez zenuen egia, alajaina, buelta hartzeko unean bertan lainotzen direla lekuen izenak.



NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO / K. MINER


Enpresan, mailaz eta soldataz igotzea, herentzia bat jasotzea, etxe bat erosi ahal izatea, lagun ugari edukitzea... Arrakastaren laukitxo guztiak beteak ditu Jezabelek, argi du zer nahi duen bizitzan eta zirt-zart hartu ohi ditu erabakiak. Halako batean, ordea, txikieria batekin paralizaturik geratuko da. Emakume gazte baten nora eza darabil Katalin Minerrek gure gizarteko hainbat gai jorrazteko: familia eta bikote ereduak, heteroerua, harreman batean bilatzen duguna... Nortasunez beteriko lehenengo eleberririk bat, irakurlearen gogoak astindu eta zer pentsatua emango diona.



HARAGIA / E. RODRIGUEZ

Hamabi ipuinez osatua da Eider Rodriguezen bigarren narrazio bilduma hau, eta liburuaren lehen kontakizunak eman dio izena: Haragia. Aitzoaren ahoan ebakitzeko kinkan diren pertsonaiak dituzu hemen: bizi-aldi berri baten atarian, harreman gatazkan gainbehera, urraduran ezpala sartuta.


MUSIKA



R. ORDORIKA
GURIA OSTATUA



ZEA MAYS
HARRO



IZARO
OM

